JUNTAS GENERALES DE ALAVA

ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

**SUPLEMENTO**
al Boletín Oficial
del Territorio
Histórico de Álava

**GEHIGARRIA**
Araba Lurralde
Historikoaren
Aldizkari Ofiziala

**2013ko urriaren 23a, asteazkena** ZENBAKIA **122** NÚMERO **Miércoles, 23 de octubre de 2013**

## ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

**5236**

**27/2013 Foru Araua, urriaren 9koa, 4/2013 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua baliozkotzeko dena. Honek baimena ematen du zerga garrantzia duten datuak lagatzeko, helburua baita doako laguntza juridikorako eskubidea aitortzea.**

Arabako Biltzar Nagusiek, 2013ko urriaren 9an egindako osoko bilkuran ondoko foru araua onetsi dute:

27/2013 Foru Araua, urriaren 9koa, 4/2013 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua baliozkotzeko dena. Honek baimena ematen du zerga garrantzia duten datuak lagatzeko, helburua baita doako laguntza juridikorako eskubidea aitortzea.

ARTIKULU BAKARRA.- Baliozkotuta geratu da 4/2013 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua. Honek baimena ematen du zerga garrantzia duten datuak lagatzeko, helburua baita doako laguntza juridikorako eskubidea aitortzea.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko urriaren 9a.– Lehendakaria, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

## ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

**5243**

**28/2013 Foru Araua, urriaren 9koa, urtarrilaren 29ko 3/2007 Foru Arauaren, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarenaren, 44.3.d) artikuluaren ondoreak hedatzen dituena.**

Arabako Biltzar Nagusiek, 2013ko urriaren 9an egindako osoko bilkuran ondoko foru araua onetsi dute:

28/2013 Foru Araua, urriaren 9koa, urtarrilaren 29ko 3/2007 Foru Arauaren, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarenaren, 44.3.d) artikuluaren ondoreak hedatzen dituena.

## JUNTAS GENERALES DE ÁLAVA

**5236**

**Norma Foral 27/2013, de 9 de octubre, de convalidación del Decreto Normativo de Urgencia Fiscal 4/2013 que autoriza la cesión de datos con trascendencia tributaria para el reconocimiento del derecho a la asistencia jurídica gratuita.**

Las Juntas Generales de Álava en su sesión plenaria celebrada el día 9 de octubre de 2013, han aprobado la siguiente Norma Foral:

Norma Foral 27/2013, de 9 de octubre, de convalidación del Decreto Normativo de Urgencia Fiscal 4/2013 que autoriza la cesión de datos con trascendencia tributaria para el reconocimiento del derecho a la asistencia jurídica gratuita.

ARTÍCULO ÚNICO.- Se convalida el Decreto Normativo de Urgencia Fiscal 4/2013, que autoriza la cesión de datos con trascendencia tributaria para el reconocimiento del derecho a la asistencia jurídica gratuita.

Vitoria-Gasteiz, 9 de octubre de 2013.– El presidente, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

## JUNTAS GENERALES DE ÁLAVA

**5243**

**Norma Foral 28/2013, de 9 de octubre, de extensión de efectos del artículo 44.3.d) de la Norma Foral 3/2007, de 29 de enero, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.**

Las Juntas Generales de Álava en su sesión plenaria celebrada el día 9 de octubre de 2013, han aprobado la siguiente Norma Foral:

Norma Foral 28/2013, de 9 de octubre, de extensión de efectos del artículo 44.3.d) de la Norma Foral 3/2007, de 29 de enero, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

ZIOEN AZALPENA

Krisi ekonomiko eta finantzarioaren ondorioz, ohiko etxebizitza erosteko hipoteka mailegu bat kontratatu zuten asko eta asko ohiz kanpoko egoerak bizitzen ari dira, izan ere, zailtasunak dituzte beraien betebeharrei aurre egiteko. Hori horrela, nahitaezkoa da egoera arintzera bideratutako neurriak hartzea.

Gizarteko sektore kaltetuenen interesak zaintzeko asmoz, apirilaren 15eko 13/2013 Foru Arauak, 2013. urterako zerga neurriei buruzkoak, d) letra gehitu dio urtarrilaren 29ko 3/2007 Foru Arauaren, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarenaren, 44. artikuluko 3. paragrafoari. Letra horren bidez, salbuetsi egiten da finantza erakunde batek eskatuta abiarazitako prozedura judizial baten ondorioz ohiko etxebizitza eskualdatzeagatik sor litekeen ondare irabazia, baldin eta etxebizitza hori zergadunak duen bakarra bada. Neurri horrek 2012ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondoreak.

Neurri hori egokia izan arren, sortzen dituen ondoreak ez dira nahikoak, krisi ekonomikoa 2012ko urtarrilaren 1a baino lehenagokoa da eta. Egon liteke jendea, beraz, aipatutako salbuespenean araututako baldintza berberetan egonda ere, lehen baino egoera larriagoan dagoena, baldintzok data hori baino lehen eman zirelako eta ondare irabaziarengatik zerga ordaindu behar izan dutelako.

Hori ikusita, foru agindu honen xedea da salbuespenaren ondoreak preskribatu gabeko ekitaldi guztietara hedatzea, arrazoi hori dela-eta zerga ordaintzeagatik lehen baino egoera larriagoan daudenek diruaren itzulketa eska dezaten.

Halaber, proposatutako neurria ohiz kanpokoa denez, balizko itzulketan ez da berandutze interesik likidatuko.

Artikulu bakarra. Hedatzea urtarrilaren 29ko 3/2007 Foru Arauaren, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarenaren, 44.3.d) artikuluaren bidez araututako salbuespenaren ondoreak.

1. Preskribatu gabeko zergaldi guztietan aplikatuko da urtarrilaren 29ko 3/2007 Foru Arauaren, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarenaren, 44. artikuluko 3. paragrafoko d) letraren bidez araututako ondare irabaziaren salbuespena, bertan adierazitako baldintza berberetan.

2. Aurreko idatz zatian xedatutakoa aplikatzeagatik egin beharreko itzulketan ez da berandutze interesik likidatuko interesdunaren alde.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Indarrean jartzea.

Foru arau hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, haren artikuluetan ezarritako berariazko ondorio eta guzti.

Bigarrena. Gaikuntza.

Arabako Foru Aldundiak baimena dauka foru arau hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko urriaren 9a.– Lehendakaria, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

Las actuales circunstancias excepcionales, motivadas por la crisis económica y financiera, en las que numerosas personas que contrataron un préstamo hipotecario para la adquisición de su vivienda habitual se encuentran en dificultades para hacer frente a sus obligaciones, exigen la adopción de medidas que contribuyan a aliviar esta situación.

En el intento de velar por los intereses de aquellos sectores sociales más desfavorecidos, la Norma Foral 13/2013, de 15 de abril, de Medidas Tributarias para el año 2013, ha introducido una nueva letra d) al apartado 3 del artículo 44 de la Norma Foral 3/2007, de 29 de enero, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, por la cual se considera exenta la ganancia patrimonial que pudiera generarse fruto de la transmisión de la vivienda habitual debido a un procedimiento judicial instado por una entidad financiera, siempre y cuando dicha vivienda fuera la única del contribuyente. Esta medida empieza a producir efectos desde el 1 de enero de 2012.

No obstante la idoneidad de la citada medida, se revela insuficiente el despliegue de sus efectos puesto que la aludida situación de crisis económica se remonta a tiempo anterior al 1 de enero de 2012, pudiéndose producir supuestos idénticos a los regulados en la exención antedicha, que por haberse producido en un momento anterior, ven agravada, aun más si cabe, su delicada situación con la tributación por una ganancia patrimonial.

Ante esta situación, es objeto de la presente Norma Foral ampliar los efectos de la exención de referencia a todos los ejercicios no prescritos, a fin de que quien haya visto agravada su situación tributando por este supuesto pueda solicitar su devolución.

Asimismo, y dada la excepcionalidad de la medida propuesta, en la devolución que pudiera proceder no se liquidarán intereses de demora.

Artículo Único. Extensión de efectos de la exención regulada en el artículo 44.3.d) de la Norma Foral 3/2007, de 29 de enero, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

1. A todos los periodos impositivos no prescritos, y en sus mismos términos, será de aplicación la exención de la ganancia patrimonial regulada en la letra d) del apartado 3 del Artículo 44 de la Norma Foral 3/2007, de 29 de enero, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

2. En la devolución que proceda efectuar por la aplicación de lo dispuesto en el apartado anterior no se liquidarán intereses de demora a favor del interesado.

DISPOSICIONES FINALES

Primera. Entrada en vigor.

La presente Norma Foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el BOTHA, sin perjuicio de los efectos expresos previstos en su articulado.

Segunda. Habilitación.

Se autoriza a la Diputación Foral de Álava para dictar cuantas disposiciones sean necesarias para el desarrollo y aplicación de la presente norma foral.

Vitoria-Gasteiz, 9 de octubre de 2013.– El presidente, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

## ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

5251

**29/2013 Foru Araua, urriaren 9koa, berresten duena Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrarekin eta INGEMA Institutu Gerontologiko Matia Fundazioarekin izenpetu beharreko hitzarmena.**

Arabako Biltzar Nagusiek, 2013ko urriaren 9an egindako osoko bilkuran ondoko foru araua onetsi dute:

29/2013 Foru Araua, urriaren 9koa, berresten duena Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrarekin eta INGEMA Institutu Gerontologiko Matia Fundazioarekin izenpetu beharreko hitzarmena.

## JUNTAS GENERALES DE ÁLAVA

5251

**Norma Foral 29/2013, de 9 de octubre, de ratificación del Convenio a suscribir con la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco y la Fundación Instituto Gerontológico Matía (INGEMA).**

Las Juntas Generales de Álava en su sesión plenaria celebrada el día 9 de octubre de 2013, han aprobado la siguiente Norma Foral:

Norma Foral 29/2013, de 9 de octubre, de ratificación del Convenio a suscribir con la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco y la Fundación Instituto Gerontológico Matía (INGEMA)